

HANGO HODEI BAT HEMENGO ZERUAN

Amaia Iturriotz Etxaniz

Urretxu

Mont Royale mendiaren oinetan eraiki zutelako dauka Montreal izena. Hargatik, errege-erreginak imajinatzen nituen hasieran gailurreko gazteluan, zetazko soinekoz eta inuitei alkoholaren truke erositako kastoreen larruz jantzita. Gero konturatu nintzen, inon erregerik bada, hori mendia bera dela, behin agindu baitzuen bere 233 metrotik behera izan behar zutela hiriko eraikin guztiek eta gailurrera sinesgaitz igo nintzen hartan jakin nuen, baietz, etxe-orratz guztiak zapata-zolen azpian neuzkala. Ordotik errukiz begiratzen diet hemengoei, ni ere hemengo sentitzen hasi naizenetik, akaso, gutxiago, baina ez al da triste muga izatea mugarik gabeko horretan ere? Zeruan. Gora begiratzen dudan bakoitzean arkitekto frustratuak ikusten ditut hodei zurien tokian, beren estudioetako hormek itota, deskubritu nahian nola eraiki litekeen 232,99 metroko etxe-orratza hodei forma daukaten beste arkitektoek baino lehenago. Izan ere, gizakia mukan dabil beti, mugak non diren jakin gabe gehienetan.

Zuk, Ryan, ezetz esaten didazu, ez pentsatzeko horrela, inoiz ez dutela Mont Royale baino eraikin garaiaorik egingo. Eta nik baietz. Arkitekto azkarrenaren etxe-orratzaren puntan, puntaren puntan, txori bat hasiko dela kantari. Orduan, bigarren arkitekto azkarrenak itzal luze bat ikusiko du lurlean, 233 metro baino luzeagoa, eta erabakiko du bera ez dela gutxiago izango eta estudioa erretiratuko da mendia baino bi metro altuagoa izango den eraikinaren pilareak marraztera. Eraikin bat, bi, hiru, lau. Tokitan geldituko da Mont Royale, horregatik, kultura sailburuak lege zaharra aldarrikatuko du, mendia errege zenekoa eta 300 metroko mendi bat eraikiko dute zaharraren alboan. Ondare kulturalaren eta ekologiaren aldeko foiletoren izurria jasango du Montrealek, baina hemen, Euskal Herrian ez bezala, paperek ez dute lurlean bukatuko, birziklatzeko edukiontzian baizik.

Kanadan dena da zuzena, txukuna, garbia, legala. Museo batean kubo formako beirate batez babesturik legokeen kartoizko maketa perfektua. Nik ez ditut ez Londres eta ez Unai Elorriaga eza gutzen, baina Londres baino kartoizkoagoa dela esango nuke. Beraz, imajinatu zerumugan desagertzen den kartoizko errepide zabala, errepidea bera baino marra zuzenago bat daukana zebrabidearen orde. Hortik noa ni, *playmobil*-eko panpinatxoa, zangoak plastikozkoek baino hobeto mugitzen ditudala. Begira jarriz gero, uda amaierako beroarekin bat ez datorren ile mataza daramat mototsean bilduta, mataza, fardoa ez esatea-

rrren. Sudurra, aldiz, zilar puska batez zulatuta daukat, energiarik sortzen ez duen eguzki-plaka txiki batez, zeinak dizdiz egiten didan autobus-geltokirako bidean. Minutu bat ere ez dut behar izaten hara iristeko, zakarrontziak bezain ugariak direlako autobus-geltokiak hemen, kalean ibili beharreko metro bakoitza bide luzea baita neguan.

Illaran jarri naiz neska iharraren atzean. Berak beti bezain ahul begiratu dit begi isil horiekin, soa mintzo dela dioen teoria erromantikoa hankaz gora botatzen duelarik berriro. Oso neska misteriotsua da; izan ere, hilabeteak daramatzagu autobusa elkarrekin hartzen eta deus ez dakigu elkarri buruz. Beno, berak akaso aspaldi atereak izango ditu nire pentsamenduen hesteak, baina nik, benetan diot, goizero ikusten dut estreinakoz. Zuri du gorputza, zurbil aurpegia. Besoak, aldiz, haragirik inguratzen ez duen irinezko azal zati horrek, humeroa bera dirudi, besterik gabe, soilki, zakurrari bumeran gisa jaurtitzeko moduan. Gona handi geratzen zaio, kamiseta ere bai, zapatak ez. Gaur berdeak aukeratu ditu, baina badauzka kolore gehiagotan ere, hala nola, gorriak, urdinak, horiak, zuriak eta beltzak. Dena dela, itsusiak dira guztiak. Etxeko zapatilen forma daukate, orpoa bistan utziaz. Zola oso fina eta lau loretxo puntan, behatzen parean, alegia, Euskal Herrian esango genukeenez, *txinotakoak* dira. Orobat, bada zerbait nardagarri sentiarazten nauena burura datorkidan bakoitzean. Kontua da neska hau sukaldeko arraskan imajinatzen dudala lixibatan murgilduta, bere

amak espartzuarekin igurzten duen bitartean. Horrek azalduko lituzke bere ile idor eta kolore gaixokoa, bere azal zuria, bere beso gastatuak, belaun garbiegiak. Burua ez. Gorputzaren aldean burua oso handia edukitze hori anorexiak baino ez du esplikatzen.

Bi minutu baino lehen iritsi da autobusa, bere 15 zenbakiarekin. Betazalen moduan ireki dira ateak, eta bultzarik egin gabe sartu naiz barrura. *Bonjour* eta *klik*, gidariari eta makinari. Irribarre egin dit berak, gidariak, ez makinak, hemen gidariak ez dira-eta txanponen zain bizi, egunon-en esperoan baino, inork eskatu gabe ateratzen baitituzte bidaiariek sosak patrikatik edo autobuseko txartela diru-zorrotik. Izan ere, kanadarrek ez dute burmuina euskaldunok bezain garatua, guk neuronen artean konexio gehiago izango ditugu edo. Osterantzean, ea nola esplika daitekeen ez ordaintzeko aukeren bat dugunean pizten zaigun argi berde hori, neuronen artean txinpartak sortzen dituen.

Hara, demagun gaur arratsaldean Donostiara joatekoak garela trenez. Berandu xamar gabiltza, ai, ilaratxo bat dago txartelen leihatilan, jo, pittin bat itxaron genezake berez, baina imajinatu trena gu ilaran gaudela etortzen dela, ez ez, hobe dugu txartelik ez hartu eta lasaiago joan, pikari erosiko dizkiogu txartelak, total, berdin du. *Ding dang dong*. Trenean goazela, mendiei begiratu beharrean, Zurriolako hondartzan zein gunetan jarriko garen pentsatu beharrean, pika etortzen bada zein

herritatik gatozen esango diogun meditatzen ari gara. Ormaiztegi. Han ez dago txarteldegirik geltokian. Bai, baina oso urruti dago, hobe Ikaztegieta esaten badiogu, gutxiago kobratuko digu. Pasa dugu Tolosa, ea, Alegian badago leihatilarik? Eta Urnietan? Martutenen????? *Ding dang dong.* Donostia. Hara! Ez da pika pasa, ene, ez da bidezkoa, joango gara leihatilara ordaintzera? Joango nintzateke, baina berandutu egingo zaigu. Bai. Bai. Bai. Berandutu egingo zaigu.

Horra garatuago daukagun burmuinaren atala, kanadarrek falta dutena. Falta dutelako, hemen autobusak topera doazenetan, goizeko zortziak aldera usu, gidariak ireki egiten du atzeko atea ere, bidaiariak kutxatik pasa gabe igo daitezten. Eta ni, lotsatu egiten naiz atzeko atetik sartzea bihurrikeria gisa sentitzen dudanean.

Gaur, ordea, igandea da eta ez dut autobusa zortzietan hartu. Lau katu daude aulkietan jesarrita, zehazki, zortzi. Azkena eseri dena neska iharra bera izan da, atzealdean ezkerretan. Ni, noski, bere alboan jarri naiz, automatikoki. Ilaran zein zeinen atzetik gauden arabera izaten da, edonola ere, beti elkarren alboan amaitzen dugu, aurrera begira eta elkarri hitzik egin gabe. Kosta zitzaidan gure jarraera ulertzen, baina azkenerako ohartu nintzen sinbiosia dela gurea, babestu egiten baitugu elkar. Berak eskeleto zuri higuigarri horrekin ni, nik neure jakin-min atzerritarrarekin bera. Berez ahul garen bi panpinatxok burbuila ikusezin bat sortzen dugu, euliak ere bertan sar ez daitezten. *Arrêt*

demandé. Burbuila hautsi da. Iritsi gara metrora. *Á bientôt*. Ez diot esan, baina noizbait ezpainetatik irtengo zait eta intriga dut nola erantzungo ote didan, frantsesez edo ingelesez. Edo, besterik gabe, ez didan erantzungo.

Atearen alboan egunkari banatzaileak daude, lodi eta irribarretsu. Jakin nahi nuke nork janzten dizkien txaleko laranja potolo horiek udan. Edozein moldez, hartzeko keinua egin aurretik Metro egunkaria agertu zait esku batean eta bestearekin, eskua-ekin, besoarekin eta gorputz osoarekin, atea ireki dut. Kanadako atea oso baitira astunak. Metroko sarreran ahulek ez dute lekurik, gosaritako tostadak behintzat erretzen dituzte-eta besoek, gaiztoa izanda, imajinatu dut, autobuseko neska iharra metroko atea zeharkatzen etengabe, sartu-atera-sartu-atera-sartu. Koitadua bera, maltzurra ni. Dena den, ateez ari nintzen, astunak direla eta, benetan, norabait sartu aurretik bi aldiz pentsatu behar da hemen. Horregatik, damuak saihesteko metodo gisa nekuskien hasieran ateoak, artean ez bainekien inora ez daramatenak direna zeharkatzen errazenak, zure etxekoa salbu, Ryan, arina izanagatik, horrek zugar naramanez. Hara, ez dagokion dimentsiora egin dit berriz ihes buruak, pentsamendutik pentsamendura matxinsaltoa gisan. Hala ere, berdin du, gorputzak aspaldi eman baitzuen nirekin amore, onartu zuelarik gutxitan oparituko niola garuna. Hain dira independenteak ene hankak, non ez bainaiz konturatu eskailerak jaitsi ditudala ere. Ene, zain dago metroa, sar nadin azkar.

Hor eserleku bat dago niretzat, plastiko zurizkoa, esanez bezala “Polit hori, zein eder zauden gaur, zatoz nigana”, baina nik badakit, beste askok bezala, nire ipurdia nahi duela, ez besterik. Besteei ez, aulkiari, ordea, nahi duena emango diot eta bide batez, egunkaria irakurriko dut lasai.

Lehen orriak ez dio ezer berririk, eguneratuta egotea, ezer izatekotan, errepikatzen jakitea delako. Aitzitik, begi biak kobazuloak bailiran zabaldu zaizkit atzeko orriari so egin diodanean, Montrealgo egunkari batean irakurri dudanean Katalunian zezenketak debekatu dituztela. Katalunia Kanadan, zezenketen albistea Kubako tornadoare-naren ondoan. Hasieran ez zait buruan sartu eta mundua psikiatriko batean ingresatu dut ia. Gero bai, nongoa naizen galdetzen didaten bakoitzean izaten dudan elkarrizketa errepikakorrek ulertarazi dit albistea ez dagoela tokiz kanpo. Nongoa zara? Iberiar penintsularen iparraldekoa. Erantzun hori ematen diedan orduko *Google Earth* txiki bat programatzen zaie garunean eta munduko bola osoa hartzen duen ikusmira Europara hurbiltzen da lehenengo, apur bat behera ondoren eta hara hor Iberiar penintsula. Stop. Behin zoom egokia dute-larik, bestalde, mapa zati hori koloreztatu egiten dute, horiz eta gorriz. Stop berriz eta hiru hitz kanadar doinuarekin: paella, corrida, Ibiza. Barre lagunkoiak ihes egiten die orduan eta niri errazago zait irribarre behartuari eustea kanadarraren barrea fusilatzea baino, zera esanez: nire etxean larunbatetan jaten den arroza zuria da, zezen-ziria

toreroei sartuko nieke eta lehenago bisitatu dut Montreal Ibiza baino.

Elkarrizketon gomutak erakusten du zein garrantzitsua den kanadarren Katalunian zezenketak debekatu izana. Izan ere, berri honek kolokan jartzen dizkie *Google Earth*-ekin topatutako zezenketa *joli* horiek eta pentsa zer den herrialde horigorri horretako atzeritarrak zuritzeko hiru hitz izan eta birekin baino ez geratzea!

Prochain station, De l'Église. Megafoniak kargu hartu dit ea gaur zertan ote nabilen, lau geltoki pasa ditugula eta oraindik ez naizela horoskopoa irakurtzen hasi. Jaramon egin diot, noski, ahots eder horri. Izan ere, metroko ahotsa nire amaren antzekoa da, non amak frantsesez jakingo balu, bera zela pentsatuko nukeen. Joan zen astean, esaterako, nire amaren urtebetetze eguna izan zen eta metroz etxera bueltan nindoala, abesti bat kantatu nion zorientzeko, Kaxianorena. Eta *Prochaine station, Angrignon* esan zuenean, *eskerrik asko* entzun nuen nik. Nire ama Leo da, hortaz, gaur erabaki egin beharko omen du harreman bati jarraipena eman edo ez. Aitarekin segi edo ez? Bah, horoskopoa hauek gezurra besterik ez diote! *Capricorne*, ea zein gezur asmatu duten niretzat, *La chance amoureuse vous accompagne.* Zortea amodio kontuetan? Hara, gaur ere asmatu du bada! Zer? Ez, nik ez dut horoskopoez gezurra diotenik sekula esan. Bi geltoki falta dira *Berri-Uqam*-era iristeko, han geratu bainaiz Ryanekin. Zer egin ez dakidanetan, hau da, horoskopoa irakurtzen bukatzen

dudanetan, orduan jartzen naiz ingurukoei so, atso zaharrak herriko plazako bankuan bezala. Hala egingo ez banu, ez nintzateke konturatuko indibidualismoaz, aniztasunaz eta kontrasteaz gaindi, badela errepikatzen den molde bat Montrealgo metroan. Neska gazteak dira, ile luzea erdi nahasita daramatenak, kizkurra edo lisoa, ispiluaren aurrean hiru ordu laurden pasa dituztenak itxura utzia eman nahian beren adatsari. Betaurreko erraldoiak dituzte, orain hogeita hamar bat urte erabiliko zituztenen tankerakoak. Marinelen kamiseta marraduna edo ilustratuen alkandora zilborra baino gorago eta bihotza baino beherago daramaten gonaren barrutik janzten dute. Poltsan, aldiz, Doraemoni patrikan baino tramankulu gehiago sartuko litzaizkieke. Modaren muturreko aplikazioa dira, definitzen ezinezkoak, non errazagoa zaidan horoskopoa bigarrenez irakurtzea beraientzat izen bat erabakitzen ahalegintzea baino.

Berri-Uqam esan du amak megafoniatik. Hemen jarri dugu zita, nik linea berdetik laranjarako aldaketa egin behar baitut eta zu estazio honen inguruan bizi den lagun batekin egotetik baitzatoz. Zabaldu dira ateak, gogoraraziz gaur zergatik esnatu naizen urduri, eta txindurriak baikinen, bizi-bizi hartu du bakoitzak bere bidea; nik zukanakoa, kanpoan egongo baitzara zain. Ohi bezala, eskailera mekanikoez alferkeriara gonbidatu naute. Gonbitea onartu eta eskuinean jarri naiz, Kanadan eskailera mekanikoen eskuinaldean jartzen baitira denak, bat bestearen atzean, binaka ez sekula, pre-

saka dabilena ezkerraldetik korrika pasa ahal izateko.

Bilboko Corte Inglesen ere bada presaka dabilenik, baina besteen patxadari men egin nahi ez diotak ez du eskailera arruntetatik oinez igo beste aukerarik izaten. Euskal Herriak badu, hortaz, inbidia sentitzeko arrazoirik, hemen armonia ederrean bizi baitira beltzak, zuriak, arrosak, berdeak, horiak, patxadatsuak, eta presaka dabiltzanak ere bai.

Koloreen armonian galtzen ari nintzela, batbatean hor goian ikusi zaitut esku leun horrekin agur eginez eta zu besarkatzeko gogoak erabaki du presaka nabilela ni ere, konturatzerako ezkerraldetik lasterka nindoalarik. *Hey* itoa zurea, berehala mututu ditudanez nireak halako bi diren zure ezpain ilunak. Ea prest naizen galde egin didazu momentuan, eskertu dizut, *you know*, eta ez galdera bakarrik, gaur nirekin etortzea bera ere bai, berez ez daukazu-eta nirekin Montrealgo Euskal Etxearen bila zertan aritu. Beno, beharbada Euskal Herriarekiko interes pittin bat piztu zaizulako ere egiten duzu, ez nigatik bakarrik. Izan ere, grazia handia egiten dit zu, zure hortz eta galtza zuriekin, Karibeko azal ikaztu horrekin, nire herriaz galdezka aditzeak. Zer jaten dugun euskaldunok. *Flower* euskaraz nola esaten den. Han ere aritzen ote garen hockeyan eta beisbolean. Nire herriak zenbat biztanle dituen. Hori hasieran. Gero, ordea, turismo gidetatik kanpoko deskubritzera behartu zintudan. Barkatu, badakit ez direla hain politik

isiltasunaren, kartzelen, balen, hizkuntza arrotzen eta malkoen galdera ikurrak. Aitzitik, erantzuna itsusia izango denaren jakitun izanik ere, galdezka jarraitzen duzu, zure iritzia sortu nahi duzu eta aitortzen didazu deus gutxi ulertzen duzula, galdu egiten zarela. Eta nik, lasai egoteko, aurkitzen gehien saiatzen dena izaten dela galduen egoten dena.

Elkarri gerritik helduta zuzendu gara linea laranjaren trenbideraino, pasioz errailak gorri bihurtzarren. Txindurri ziren haiek latako sardina bihurtu dira supituki, hartu berri dugun metroan metrorik ez dagoelako hutsik. *Sherbrooke. Mont-Royal. Laurier.* Hau da gurea, hemen jaitsi behar dugu. Plano eta guzti etorri gara gaur, piratek altxorra non den dioen pergaminao ekarriko luke ten gisan. Bertan irakur dezakegunaren arabera, *Rue Saint Denis* topatu behar dugu lehenengo, handik zuzen jarraitu eta Boulevard de Saint Josephera iristeko. Halaxe egin dugu, beraz, nahiko bizkor, gainera, kaleko seinaleek dezente lagundu digutelako eta, noski, zuk, zer edo zer ezagutzen dituzulako zeure hiriko txoko-kaleak. Behin boulevard honetara ailegatuta, distantzia luzea geratzen zaigu aurretik, Interneten begiratu nuenez, 1.160 zenbakian baitago Euskal Etxea. Eskuineko espaloitik paseoan goaz biok lasai, auzo honetako etxeak geurekoak baino dotoreagoak direla onartzera behartuta. Eskailera bana daukate kanpoaldean, barraskiloaren forma harturik bigarren pisura iristen dena. Ez dut uste horrelakorik agertzen den

film asko ikusi dudarik, baina pelikuletako etxeak iruditu zaizkit, arrotz zaizkidalako apika, fantastiko samar.

Gure zapatak erritmo berean dabilta, nire bihotza, ordea, zurea baino azkarrago doa. Taup-taup taup-taup. Albotik begira sumatu zaitut, aizu, esaten ausartzen ez zaren zerbait adierazi nahi duzunean egiten duzun moduan. Bai, arrazoi duzu, planoari so eginik ez dirudi gehiegi egiten dugunik aurrera, autobus bat hartu behar genuen akaso, tira, berdin du, azkarrago joango gara eta listo. Ibilian ibilian nire frantseseko eta ingeleseko klaseez hitz egin dugu, zure amaren maniez, nire hemengo etxeko amonaren kristautasun erradikalaz, zutaz, nitaz... Euskal Etxeaz izan ezik, beste guztiaz. Dena den, funtsean azken honi baizik ez gatzazkio kontzientzia eskaintzen ari, atari guztietako zenbakiei so dihardugulako laserrak baikinena, 1.160 madarikatuarekin haserre dagoeneko.

Helburutik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta gehiago ari naiz zehazten Euskal Etxe horren harira eraikitako ideia. Imajinatu dut eraikuntza baxu samar bat, zabala halere. Atea zeharkatzeaz bat, tragoak hartzeko barra eder bat dago, atzeko horman ikurrina daukana esekirik pilotariren baten argazkiaren alboan. Gainerako eremua, aldiz, mahaiek betetzen dute, musean ari diren kanadar-euskaldunek okupatuak gehienak. Fondon, bestalde, oholtza txiki bat dago, non bertsolariak oso ongi emango luketen, baina bertsolariak zer diren beste egun batean kontatuko dizut, Ryan.

1.160. Kontrako eztarritik joan zaizkit ia pentsamenduak, hau ez baita buruan marraztu dudan eraikin baxu espaziotsua, garbi esanda, gainerako etxeak bezalakoa da, adreiluzko eraikuntza frantsestua, eskaileraduna, noski, eta ez da hemen ez barraren, ez oholtzatxoaren usainik hartzen, ez-eta enbidorik edo ordagorik entzuten ere.

Zu arin jabetu zara nire ezinegonaz, nolabaiteko dezepzioaz, hargatik, bizkarretik heldu nahi izan didazu, baina azkenean erabaki duzu hobe dela ez kontsolatzea, kontsolatzeko arrazoirik dagoen ez dakigun bitartean. Segidan, bare iradoki duzu txirrina jotzea. Behin. Bitan. Hirutan. Lautan. Ez du inork erantzuten.

Zerua buru gainera jausi zaidala konturatu zara, ez dakizu ondo zergatik, baina ezin duzu onartu hau horrela bukatzerik eta nik alde egiten utzi diodan esperantza zuk atxiki duzu. Zure mugikorra pausatu didazu eskuetan, deitzeko esanez, Interneten topatu nuen harremanetarako zenbaki horretara, saiatzeko behintzat. Nik ez dut nahi, uste dut nahiko garbi dagoela zer den dagoena, zehatzago esanda, ez dagoena. Edonola ere, presio handiegia da zure begi beltzak mugikorra sostengatzen duten ene hatzetan iltzaturik sentitzea, hori dela eta, bakarrik ekin dio hatz lodiak papertxo batean apuntatutta nekarren zenbakia markatzeari. Bost, bat, lau. Bost, bi, hiru. Hiru, bost... Tekla gorria.

Begira, Ryan, ez dakit nola azaldu zergatik, baina ez dut honi buruz ezer gehiago jakin nahi.

Montrealen ez dago Euskal Etxerik martxan, ez behintzat oso aktiboki. Bilbon ez dakit baden kanadarren bilgunerik, ez balitz eta han bazeunde, ni jarri naizen bezain triste jarriko al zinateke? Euskaldunok geure herriari lotuegi gaude. Orain bai, bizkarretik heldu didazu eta buelta oinez egiteko nekatuegi, espaloiaeren ertzeko belardian etzan gara luze, autobusa noiz etorriko.

Eguerdiko ordu biak dira eta zerura begira gaude. Hara, hodei batek bihotz forma daukala seinatu du zure hatz batek. Bihotzarena ez, txotxolo, horrek Euskal Herriaren eitea du. Erdi triste itaundu didazu orduan Euskal Herriaren eta zure artean zein hautatuko dudan, lainoari zazpi probintzien irudia atxiki diodan orduko hegazkinean alde egiten irudikatu izan baninduzu bezala. Begietara begiratu dizut. Dear, zurekin etzanda nago Euskal Herria dirudien laino bati begira, gus-tura. Euskal lurretan etzanda banengo, ez uste izan zure tankerako laino batekin konformatuko nintzatekeenik. Burua jiratu duzu irribarrez eta orain pare bat aste ikasitako *maite zaitut* esan didazunean euskaraz, eguzkia irten da lainoaren atzetik.